

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Sanz Lehendakariak FAPEk eta Nafarroako Kazetarien Elkarteak antolatu duten "Kazetaritzaren etorkizuna" biltzarra ireki du

Jáuregui ministroak eta Catalán kontseilariak gaur arratsaldean itxiko dute jardunaldia, Iruñan egingo den FAPEn LXX. Asanblearen bezperan

Viernes, 08 de abril de 2011

Miguel Sanz Nafarroako Lehendakariak "Kazetaritzaren etorkizuna" biltzarra ireki du gaur. FAPEk, [Espainiako Kazetarien Elkartearen Federazioak](#), antolatu du [Nafarroako Kazetarien Elkartearen](#) laguntzarekin. Jardunaldiaren sustatzaileek Iruñan hedabideen alorreko 400 profesional baino gehiago biltzea aurreikusi dute, irekierako konferentzia magistralean, programan agertzen diren hiru mahai-inguruetan eta ekitaldia itxeko egingo den ondorioen bileran. Itxiera ekitaldia Ramón Jáuregui Presidentzia Ministroak eta Alberto Catalán Erakundeekiko harremanetarako kontseilaria eta Gobernuaren eledunak itxiko dute.

Jardunaldia Pío XII.a etorbideko Civicanen egoitzan egin da eta Nafarroako Kazetarien Elkarteak antolatu du mendeurrena ospatzeko ekitaldien programaren barruan. Bihar, larunbata, Foru Parlamentuan egingo den FAPEn LXX. Asanblea Nazionalaren sarrera izango da; Asanblea Elena Torres FAPEko presidentea irekiko du.

Biltzarraren helburua zera da: kazetarien egitekoan teknologia berriak ezartzeak eragiten dituen aldaketen inguruan gogoeta egitera bultzatzea, baita horrek sortzen duen negozio eredua berrikustearen, belaunaldi gazteenen artean irakurzaletasunaren beharakadak dakartzan erronken edo sektoreko lan baldintzek okerrera egitearen inguruan ere.

Irekiera ekitaldian Elsa González FAPEko presidentea eta Miguel Ángel Barón Nafarroako Kazetarien Elkarteko presidentea izan dira. Mintzaldian, Sanzek Nafarroan informazioaren profesionalak duten "eginkizun ezaguna eta aintzatetsia" azpimarratu du. Haren ustez, horren adierazgarri dira Foru Erkidegoa estatuan "eguneroko prentsa gehien irakurtzen duen" lurraldeetako bat dela dioten estatistikak; gainera, "Nafarroako Unibertsitatean Komunikazio Fakultatea dago eta, urtero, 200



Sanz Lehendakaria Elsa González FAPEko presidentearrekin eta Miguel Ángel Barónek

ikasleak gora lizentziatzen dira Kazetaritzan, Irudi Zientzietan eta Publizitatean eta Harreman Publikoetan".

Lehendakariak, halaber, kazetariak sistema demokratikoetan duten "funtsezko" nagusitasuna nabarmendu du, "herritarrek oinarritzko eskubide batzuk baliatzearen alde egiten dutelako, azken finean herritarrek baitira gizartearen behin betiko erabakirik garrantzitsuenak hartzen dituztenak". Biltzarrak duen garrantzia ere azpimarratu du; Lehendakariaren ustez, kazetaritzaren etorkizunaren inguruan gogoeta egitera bultzatzen du "komunikazioetan eragina izan duen garapen teknologikoa hedabideen egoera eta orain arte ezarritako errealitateak etengabe aldatzen ari den garai nahasi honetan".

Nafarroako Kazetarien Elkarteak aurten beteko duen mendeurrena ere gogorarazi du. "Elkartea egoki jardun da pasa den mendean, zalantzarik gabe, kazetariok gizartearen alde lan handia egin duzue, informatzeko orduan egitiak izan zarete, iruzkinak eta iritziak eman dituzue, eta gertaeren interpretazioa egin eta testuingurua eman duzue. Labur esanda, herritarrei errealitatea zein den jakitera eman diezue", esan du.

Programa

Biltzarraren programa "La ética y el periodismo, ahora" (Etika eta kazetaritza, gaur egun) konferentzia magistralarekin hasi da. Manuel Núñezek, Zientzia Juridikoen katedraduna eta FAPEko Kexen eta Deontologiaren Batzordeko presidentea denak, aurkeztu du. Haren mintzaldiaren sarrera *Periodistas* aldizkariako Eduardo San Martín zuzendariak egingo du.

11:45ean eguneko lehen mahai-ingurua egingo da "Llamados a entenderse (periodistas y empresas)" (Konpontzera behartuak, kazetariak eta enpresak) izenekoa. Madrilgo Prentsaren Elkarteko presidentek moderatuko du eta hauek izango dira partaideak: Elsa González FAPEko presidentea, Juan Martínez Comisiones Obreraseko hedabideen sektoreko idazkari nagusia, Arsenio Escolar Espainiako Aldizkako Argitalpenen Elkarteko (AEPP) presidentek eta Espainiako Egunkarien Argitaratzaileen Elkarteko (AEDE) ordezkari bat.

13:00etan bigarren mahai-ingurua egingo da "Actualizar la información" (Informazioa eguneratzea) izenekoa. Aurelio Martín FAPEko presidenteordea eta biltzarreko koordinatzailea denak moderatuko du. Saio horretan honako hauek hartuko dute parte: Rosa María Calaf TVEko berriemaile ohiak, Carmen Pérez de Armiñán Complutense Unibertsitateko Informazioaren Zientzien Fakultateko dekanok, Mónica Herrero Subías Nafarroako Unibertsitateko Komunikazio Fakultateko dekanok, Jaime Brull Editrain enpresako kontseilari delegatuak eta Gerad Peris Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko ikaslea.

Kazetaritzako Nazioarteko II. Manu Leguineche Sariaren aurkezpena

17:00etan "Crisis y periodistas" (krisialdia eta kazetariak) gaiaren inguruko eztabaida egingo da. Eztabaida horretan sektorearen gizarte eta laneko arazoak, autoenpleguaren formulak, freelance lana eta hedabideetako profesionalek ekintzetan bat egiteko duten gaitasuna aztertuko dira. Mahai-ingurua Juan Luis Manfredi IE University unibertsitateko irakasleak eta kazetariak moderatuko du eta gatazka armatuetan erreportari aditua eta Gatazkaren eta Giza Ekintzaren Azterlanen Institutuko ikerlaria, Mayte Carrasco, eta Gaztela-Mantxako Kazetarien Federazioko presidentea, Lidia Yanel, izango dira parte hartzaileak.

18:10ean ondorioen inguruko bilera egingo da Ramón Jáuregui ministroa, Alberto Catalán Nafarroako Gobernuako Erakundeekiko harremanetarako kontseilaria eta Gobernuaren eleduna, Elena Torres Foru Parlamentuko presidentea eta FAPEko zuzendariak buru direla.

Arratsaldeko saioan Kazetaritzaren Nazioarteko II. Manu Leguineche Saria ere aurkeztuko da, Kazetarien Nazioarteko Federazioak eta Europako Kazetarien Elkartearen laguntzarekin sustaturikoa.



FAPEk Iruñan egin duen biltzarrean izan direnak, besteak beste, Rosa María Calaf (erdian)

Guadalajarako Diputazioko eta FAPEko ordezkariak Civicanen egingo den prentsaurrekoan sariaren bigarren edizioaren xehetasunak emango dituzte. 20.000 euroko saria da eta sariaren izena duen euskal kazetariaren omenez ematen da "balio konstituzionalak, demokrazia eta giza eskubideak defendatu zituelako" eta kazetaritza behar diren "independentziaren, zehaztasunaren eta egiarekiko errespetuaren printzipioen adierazle leiala" izan zelako. Lehen edizioan Lydia Cacho kazetari mexikarrak irabazi zuen saria, zoritzarreko jendearekin duen engaiamenduagatik eta emakumeen eta hurren aldeko defentsan egiten duen lan bikainagatik. Hautagaiak aurkezteko epea datorren uztailaren 15ean amaitzen da eta irabazlearen berri irailaren 15a baino lehenago emango dela aurreikusitako da.

Biltzarrean, komunikazio digitalean aditua, Prisacom enpresako zuzendari ohia eta Prodigioso Volcán aholkularitza enpresako egungo zuzendari bazkidea denak, Mario Tascónek, kazetaritza digitalaren tailer bat eskainiko du. Biltzarra FAPERen eta Nafarroako Kazetarien Elkartearen webgunean emango dute zuzenean.